


Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

 Alango, 25
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 02 00
Faxa: 94 466 00 96
<http://www.getxo.eus>

Honen bidez jakinarazten dizut Zinegotzi Delegatuak honako Ebazpen hau eman duela:

Notifico a Vd. que por la Concejalía Delegada se ha dictado la siguiente Resolución:

Ebazpena/Resolución:	3764 / 2023	Data / Fecha:	18/07/2023
Gaia / Asunto:	2023ko Romo auzoko jaietan bertako ostalaritza- eta joko-lokalei ixteko ordutegia luzatzeko baimena ematea / Autorización de ampliación del horario de cierre a los locales de hostelería y locales de juego del barrio de Romo durante las fiestas 2023.		
Arloa / Área:	UDALTZAINGOA / POLICIA	Erref. / Ref.:	AB/bo
Interesduna / Interesado:	ASOCIACION DE HOSTELERIA BIZKAIA OSTALARITZAKO ELKARTEA / GETXO ENPRESA-GETXO EMPRESARIAL Y COMERCIAL / JEFATURA DE ERTZAINZA DE GETXO y otros.		

Kontuan hartu dira honako hauek:

Habida cuenta de los siguientes

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

I.- Laster ROMOko jaiak ospatuko direnez, eta kontuan hartuta tokiko jaiak direla-eta antolatu ohi diren ekintzak.

I.- Ante la celebración de las próximas fiestas de ROMO, y considerando los actos que tradicionalmente se han venido organizando con motivo de las fiestas locales.

II.- Egun horietan herritarrek eskatzen duten aisialdiari erantzuteko, jolas-jardueren ospakizunetara jendea etortzea espero denez, eta udalerrian jarduera ekonomikoa garatzen laguntzeko, establezimendu publikoen funtzionamendu-ordutegiak zabaldu behar direla uste da, dagokion udal-ordenantzan arautzen den terrazan araubide espezifikoki kalterik egin gabe.

II.- Con la finalidad de atender al ocio que demandan los ciudadanos durante estas fechas, dado la esperada afluencia de público a las celebraciones de las actividades recreativas, y con la finalidad de contribuir al desarrollo de la actividad económica en el municipio, se considera que procede ampliar los horarios de funcionamiento de los establecimientos públicos, sin perjuicio del régimen específico de las terrazas que es objeto de regulación en la correspondiente ordenanza municipal.

III. Espedientean Udaltzaingoaren txostena dago, ordutegia luzatzeko baimenaren aldekoa.

III. En el expediente consta informe de la Policía Local de carácter favorable a la autorización de la ampliación horaria.

Honakoetan oinarrituta:

Sobre la base de los siguientes:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Establezimendu publikoen ordutegien araubide orokorra otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez onartutako Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamenduaren 32. artikulutik 34. artikulura bitartean jasotzen da.

II.- Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 18.3 artikulua udalei ematen die, jaiak eta bestelako ekitaldiak direla-eta, establezimenduen ordutegi orokorra luzatzeko ahalmena, erregelamenduz aurreikusitako kasu eta moduetan.

III.- Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez onetsi zen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen 37.1 artikulua ezarritakoa kontuan hartu da. Honako hau dio: *"Udal autoritateek bi orduz zabaldu ahal izango dute, gehienez ere, aurreikusitako ixteko ordua, honako ekitaldi hauek tarteko:*

- a) *Udalak edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak jai-giroko edo turismorako interesgarri gisa kalifikatutako ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, izaera sozialeko gertakariak, feriak, lehiaketak, erakusketak edo antzeko beste batzuk. Gehienez ere hamabost egunetz egin ahal izango da urte natural bakoitzean.*
- b) *Herrietako jaiak. Halakotzat joko dira udal bakoitzak bere mugartean ofizialki ezarritakoak.*
- c) *Aste Santuko ostegunetik astelehenera, Inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra arte Gabonetan".*

IKUSITA aipatutako baldintzak, baita Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Oinarriak arautzen dituen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen abenduaren 23ko 10/2015 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua (jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena) eta aplikatu beharreko gainerako legeak ere.

I.- El régimen general de horarios de los establecimientos públicos se recoge en los artículos 32 a 34 del Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, aprobado por Decreto 17/2019, de 5 de febrero.

II.- El artículo 18.3 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y actividades recreativas, atribuye a los Ayuntamientos la facultad para establecer ampliaciones al horario general de los establecimientos con motivo de fiestas y otros eventos, en los supuestos y formas que reglamentariamente se prevean.

III.- De conformidad con lo establecido en el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, aprobado por Decreto 17/2019, de 5 de febrero, cuyo artículo 37.1 establece que *"Las autoridades municipales podrán ampliar con un máximo de dos horas el horario de cierre previsto con ocasión de los siguientes eventos:*

- a) *Eventos calificados como festivos o de interés turístico por el propio ayuntamiento o por el órgano competente de la Comunidad Autónoma, tales como celebraciones públicas, fiestas de barrio, acontecimientos de carácter social, ferial, certámenes, exposiciones u otros análogos, con el límite máximo de quince días por año natural.*
- b) *Fiestas patronales, entendiéndose por tales las establecidas oficialmente por cada ayuntamiento en su término municipal.*
- c) *De jueves al lunes de Semana Santa; de jueves a martes en Carnavales, y desde el 15 de diciembre al 6 de enero en Navidades"*

VISTOS los citados preceptos así como la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos regula los espectáculos públicos y actividades recreativas públicas que se desarrollen en la Comunidad Autónoma de Euskadi, Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, y demás legislación de aplicación.

Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikulua emandako eskuduntzak baliatuz eta Alkatezaren 3605/2023 Dekretuaren bidez eskuordetutako eskuduntzak aplikatuz:

En uso de las facultades que otorga el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y en aplicación de las facultades delegadas en virtud del Decreto de Alcaldía 3605/2023:

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Baimena ematea **Romo auzoko ostalaritza- eta joko-lokalei** gaur-gaurkoz indarrean dauden itxiera-ordutegiak **1.30 orduz** luzatzeko, **bertako jaiak egiten diren egunetarako, 2023ko abuztuaren 2tik 6ra.** Honako hauek izango dira itxiera-orduak:

- **Abuztuaren 2an, asteazkena, abuztuaren 3an, osteguna eta abuztuaren 6an, iqandea,** ondorengoak izango dira:

Ostalaritza 1. taldekoak: goizaldeko **01:00**a arte.

Ostalaritza- eta joko-lokalak 2. taldekoak: goizaldeko **03:00**ak arte.

Ostalaritza- eta joko-lokalak 3. taldekoak: goizaldeko **04:30** arte.

- **Abuztuaren 4an, ostirala, eta abuztuaren 5ean, larunbata,** ondorengoak izango dira itxiera-orduak:

Ostalaritza-lokalak 1. taldekoak: goizaldeko **02:30** arte.

Ostalaritza- eta joko-lokalak 2. taldekoak: goizaldeko **04:30** arte.

Ostalaritza- eta joko-lokalak 3. taldekoak: goizaldeko **06:00**ak arte.

Ostalaritza- eta joko-lokaletako 4. taldeari ez zaio ordu gehiagorik emango, gaur egun ez baitago auzoan talde horretan saikaturiko jardura- lizentzia duen lokalik.

BIGARRENA.- Dekretu honek ez du terrazan erabilerako ordutegia aldarazten, jarraitu behar delarik Ostalaritza eta merkataritza jardueri lotutako erabilera publikoko espazioaren okupazioa arautzen duen udal Ordenantzaren 18. artikulua xedatutakoa: "24:00ak arte erabili ahal izango dira terrazak ostiraletan, larunbatetan, jai bezperetan eta asteo egun guztietan ekainaren 1etik irailaren 30era."

HIRUGARRENA.- Baimendutako itxiera-ordutegia

RESUELVO

PRIMERO.- Autorizar la ampliación del horario de cierre **en 1.30 horas** sobre los horarios actualmente vigentes, **los días 2 a 6 de agosto de 2023 a los locales de hostelería y locales de juego** del barrio de **Romo**, con motivo de la celebración de las fiestas, en los siguientes términos:

- **El miércoles 2, jueves 3 y domingo 6 de agosto:** los términos de la ampliación para los locales serán los siguientes:

Hostelería Grupo 1: hasta la **1:00** de la madrugada.

Hostelería y locales de juego Grupo 2: hasta las **3:00** de la madrugada.

Hostelería y locales de juego Grupo 3: hasta las **4:30** de la madrugada.

- **El viernes 4 de agosto, y sábado 5 de agosto** los términos de la ampliación para los locales serán los siguientes:

Hostelería Grupo 1: hasta las **2:30** de la madrugada.

Hostelería y locales de juego Grupo 2: hasta las **4:30** de la madrugada.

Hostelería y locales de juego Grupo 3: hasta las **6:00** de la madrugada.

El grupo 4 de los locales de hostelería y de juego no es objeto de ampliación horaria porque actualmente no existe en el barrio ningún local con licencia de actividad clasificada en dicho grupo.

SEGUNDO.- La presente resolución no afecta al horario de las terrazas, manteniéndose lo dispuesto por el artículo 18 de la Ordenanza municipal reguladora de la ocupación de espacio de uso público vinculado a la actividad hostelera y comercial según el cual "Se amplía el horario de utilización de las terrazas hasta las 24:00 horas los viernes, sábados, vísperas de festivo y durante todos los días de la semana desde el 1 de junio al 30 de septiembre."

TERCERO.- La ampliación del horario permitido de

luzatzeko, establezimenduek gainerako funtzionamendu-baldintzak bete beharko dituzte, bai araudi aplikagarrian ezarritakoak, bai dagozkien udal-lizentzia edo -baimenetan ezarritakoak, eta establezimenduen titularrek baldintza horiek betetzen direla zaindu beharko dute.

LAUGARRENA.- Ebazpen honi jendaurreko publizitatea ematea Udaleko Ediktuen Taulan jarriz, baita udal-webgunean ere.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa den Sailari jakinaraztea, hura aplikatu baino 72 ordu lehenago, baita Bizkaiko Ostalaritza Elkarteari, Getxoko Ostalaritza Elkarteari, eta Getxo Enpresari ere.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau Getxoko Udaltzaingoari jakinaraztea, dagozkion neurriak har ditzan bertan xedatutakoa bete dadin.

cierre debe respetar en todo caso las demás condiciones de funcionamiento de los establecimientos, establecidas tanto en la normativa aplicable, como en las correspondientes licencias o autorizaciones municipales, debiendo los titulares de los establecimientos velar por dicho cumplimiento.

CUARTO.- Dar publicidad a la ciudadanía de la presente Resolución mediante su exposición en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, así como en la página web municipal.

QUINTO.- Dar traslado de la presente Resolución, al Departamento competente del Gobierno Vasco con una antelación mínima de 72 horas a la fecha de efectos, así como a la Asociación de Hostelería de Bizkaia, Asociación de Hostelería de Getxo y Getxo Empresa.

SEXTO.- Dar cuenta de la presente Resolución a la Policía Local de Getxo a fin de que adopten las medidas oportunas para que se cumpla lo dispuesto en el mismo.

Ebazpena hau Alkatearen eskuordetzaren bidez eman da

Esta Resolución se ha adoptado por Delegación de la Alcaldesa

Jakinarazpen sinadura / Firma de la Notificación		
Sinadura / Firma	Sinatzailea / Firmante	Kargua / Cargo
Jakinarazpena sinadura Firma Notificación	D./D ^a Tomas Santin Cantera Jnk/Andk	HERRITARREN SEGURITASUN ARLOKO ARDURADUNA-KOMISARIOA RESPONSABLE DEL ÁREA DE SEGURIDAD CIUDADANA-COMISARIO

EBAZPENAREN AURKA JOTZEKO BIDEAK

Administrazio-bideari azken ematen dion ebazpen honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko auzietako epaitegian BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko 29 legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39 legearen 114.c) artikuluekin bat etorritz.

MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra la presente resolución que es definitiva en vía administrativa, podrá Vd. interponer en el plazo de DOS MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, a tenor de lo establecido en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el artículo 114.c) dela Ley 39/2015, de 1 octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones

Nolanahi ere, nahi izanez gero eta aurrenengo lerroaldean adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, ebazpen honetxan aurka BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpen hori bera egotzitako organoari HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat datorrela.

Hori guztiori, zeure eskubideen alde egiteko egoki deritezun egintzak edo errekurtsuak aurkeztu ahal izanagatik ere.

Públicas.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución aludida, podrá Vd. interponer RECURSO DE REPOSICIÓN, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES, que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación, conforme a lo establecido en los artículos 123 y 124 dela Ley 39/2015 citada.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.